



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abenduaren 1ean

92 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua (4. or.).
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko emendakinak (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bortxakeria sexista saihesteko premiazko neurriei buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (16. or.).
- Adierazpen politikoa, hainbat eskubide-urrapen ustez jasan dituzten emakume venezuelarreko elkartasuna agertzeko. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen politikoa, guarani herriari buruzkoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, bortxakeria sexistaren aurkako mundu mailako eguna dela-eta. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).
- Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- Kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruzko galdera, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunakegina (19. or.).
- Servirecord enpresarekin hitzartutako zentroen instalazioetan eta altzarrietan atzemandako akatsei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).
- Zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (21. or.).

— Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionalei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (22. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

— Lehiaketa publikoa, 1999an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta Bilkura Egunkaria argitaratzea, enbalatzea eta banatzea esleitzeko (23. or.).

— Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kide bat aukeratzea (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Diputazioak, 1998ko ekainaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, 1997ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parla-mentura. Hari buruz, Kontu Ganbarak txosten bat eman zuen, 1998ko azaroaren 11ko 87 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozera-maleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- 1997ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizka-ri Ofizialean argitara dadin agintzea.

(Foru Lege proiektuko artikulua bakarrean aipa-tzen diren agiriak Foru Parlamentari jaun-andreen eskura daude Biltzarreko bulegoetan).

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegúa

Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatzea eta Kontuak formalizatzea Parla-mentuari aurkezteko, horrek ezta-baidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onespina eman diezaien, hori guztia foru legeek ezarri dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikulua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formula-zioa, horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsi-ta dituela, Nafarroako Parla-mentura igorri beharko dira behar duten Foru Lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1997ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duela eta Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroa-ko Parla-mentuko Erregelamenduko 151. artiku-luan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da Foru Lege horri onespina ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsitako Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. liburukia.- Foru Komunitateko Administra-zioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuen likidazioa, finantzen egoera-orriak eta Txosten-a. Hona hemen hori osatzen duten agiriak:

– Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorren likidazioaren laburpena.

– Gastuen Aurrekontuaren likidazioa.

– Dirusarreraren Aurrekontuaren likidazioa.

– Finantzen egoera-orriak eta argibide osaga-riak:

- Egoeraren Balantze Orokorra.

- Ekitaldiko emaitzen kontua.

- Fondoan jatorri eta aplikazioaren egoera-orria.

- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzearen kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.
 - Kobratu beharreko eskubideak eta ordaindu beharreko betebeharrak, aitzineko ekitaldietatik heldu direnak, nola dauden eta haien bilakaera azaltzen duen egoera-orria.
 - Erabilera orokorraren xedea hartu duten jabari publikoko ondasunetan ekitaldiaren barnean eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.
 - Hurrengo ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera-orria.
- Oroit-idazkia.

– Gehigarriak: Foru Ogasunaren, erakunde autonomoen, Enpresa-sektore Publikoaren eta Kontratazio Publikoaren finantza-egoerari buruzko informazio laburtua.

II eta III. liburukiak.- Nafarroako Parlamentuaren Kontuak, Kontuen Ganbararenak eta Foru Komunitateko sozietate publikoenak.

ERANSKINA

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuetako likidazioaren xehetasun dokumentuak.

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen egoera orrien xehetasun dokumentuak.

Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko azaroaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko abenduaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. arti-

kuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalgo dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1 d) artikuluan ezarri denaren babesean Nafarroako Foru Komunitateak berriazko eskumenak ditu barne merkataritzaren arloan, eta hori horrela da prezioen politika orokorra, estatuko lurraldean ondasunen zirkulazio askea eta lehiakortasunaren babeserako legedian ezarri dena deusetan galarazi gabe.

Urtarrilaren 7ko 2/1998 Foru Dekretuaren bidez, gero maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretuak ordeztu zuena, Nafarroako Foru Komunitatean azalera handia duten merkataritzako instalazioen lurralde eta hirigintzako ezarpena araupetu zen; araupeketa horren arabera, derrigorrezkoa zen horien kokaera eta ezarrita

dagoen merkataritzaren egitura espazialari buruzko Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren txostena, berregituraketa, eraldaketa edo modernizazioaren ondoretarako.

Beste alde batetik, Estatuko legelariak, txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen bidez, oinarritzko legedia izaerarekin merkataritza-gune handien irekiera aurrez merkataritzako berariazko lizentzia eskuratzearen baldintzapean jarri du; hura ematea bidezko autonomia erkidegoen eskumena da.

Foru lege honen helburu nagusia Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-gune handien ezarpena erabat eta osorik araupetzea da, hala merkataritzaren ikuspegitik nola lurraldearen eta hirigintzaren ikuspegitik.

Horrela, bada, Foru Komunitatean merkataritza-gune handiak instalatu, zabaldu edo aldarazi nahi dituztenek arestian aipatu den lizentzia hori eskatzeko beharrezana izanen dute, eta era zehakatuan zehaztu du ondore horretarako zer joko den merkataritza-gune handitzat.

Beste alde batetik, Nafarroako toki erakundeen autonomia begirune egokiz zainduz eta elkarrekin lankidetzako giroan, Foru Komunitatearen beharrezko eskuhartzea ezarri da udalaz gaindiko esparruko interes lehiakideen kasuan.

Ondorioz, nahitaezkoa da Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza merkataritza-gune handiak ezartzeko oinarritzko irizpideak finkatzera koan, arloak eraginak dituelako hirigintza, ingurugiro eta paisajea, eta segurtasun juridikoa eta tramitazio azkarra bilduko dituen administrazioko prozedura harmonikoaren taxuketan.

Halaber, orokorrean eskumenak dituen organoak merkataritzako lizentziari oniritzerakoan edo gaitziritzerakoan kontuan hartu behar dituen balorazio irizpideak zehaztu dira; eta berariazko ahalegina egin da ezaugarri horiek dituzten merkataritzako ezarpenak egon dauden merkataritzako egituren hobekuntza eta modernizaziorako izan daitezken eta, bereziki, hiriguneetako merkataritza berpizteko, horiek hutsik geratzea ekidinez. Xede hori eskuratzeko, Nafarroako Gobernuari legezko irizpideak aplikatzea eta zenbatestea eta bertan definituko diren lurralde esparru guztien merkataritzako ekipamenduaren mentsak eta superabitak zehaztuko dituen Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua egiteko eskatu zaio. Eginen den Lurralde Eredua hori ahalik eta eraginkorrena eta egokiena izatea bermatzeko, eta horretan egin diren aurreikuspenak bazter utzita merkataritza-gune handi berriak ezar daitezken ekiditeko, Foru Lege honek merkataritzako lizentzia berezi horien

ematea eteteko aukera ezarri du harik eta Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua egin edo, hala denean, berrikusi arte, eta etendura, edozein kasutan, gehienez sei hilabeteko epean iraungiko da, enpresa askatasuna eta lurzoruaren legezko erabilerearen eskubidearen ondoretarako.

Azkenik, aplikagarria den urratze eta zehapenen araubidea araupetzen du.

1. artikulua. Xedea.

1. Foru Lege honen xedea Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza-gune handien ezarpenaren arauak finkatzea da.

2. artikulua. Merkataritza-gune Handiak.

1. Foru Lege honetan ezarri denaren ondoretarako, ondokoak izanen dira merkataritza-gune handiak: dauden merkatu-guneak, indibidualak zein talde batenak, baldin eta edozein gai txikizka saltzeko badira eta horien salmentarako azalera garbia, instalatu direnean edota aurrez egon diren merkataritza-guneen zabalkuntza egin ondoren, ondoko hauen artean badago:

a) 2.500 metro karratu baino gehiago, baldin eta Iruñean eta bere eskualdean badaude edota zuzenbideko biztanleen arloan 12.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan badaude.

b) 1.500 metro karratu baino gehiago, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako udalerrietan badaude.

Salmentarako azalera garbia kalkulatzearen ondoretarako, produktuak normalean eta era iraunkorrean jendearentzat erakusten diren alde edo lokalen azalera osoa zenbatuko da; halaber, horrela kalkulatu da noizean behin edo aldi batzuetan helburu horretarako erabiltzen diren aldeak, pertsonak igarotzeko diren barneko esparruak, kutxen aldean azalera, alde horien eta irteke ateen artekoa, erakusleihen alde eta zerbitzugintzako jardueretarako dena.

2. Adierazi dena gora-behera, ez dira merkataritza-gune handitzat joko honako foru lege honen 3. artikuluan ezarri den berariazko merkataritzako lizentzia eskuratzearen ondoretarako, aurreko zenbakian ezarri den salmentarako azalera garbia eduki arren, berariaz ibilgailuak, eraikuntzarako materialak, lorezaintza eta horren osagarriak eta altzarien erakusketa eta salmentarako diren merkataritza-guneak.

3. Talde izaera duten merkataritza-gune handiak izanen dira merkataritzako lokal lokabeek osatzen dituztenak, eraikin edo esparru bakarrean daudenak, erakunde batek edo gehiagok plangintza egin eta garatuta egon daitezkeenak baina

irizpide baterakoiarekin, betiere horien merkataritza, zerbitzu erkide eta jarduera osagarrien nahaskina inguruari lotuta daudenean eta era iraunkorren irudi edo kudeaketa bakarra dutenean.

Dena den, talde izaerako merkataritza-gune handiak izanen dira, berariazko merkataritzako lizentzia hori eskuratzearen ondoretarako, ondo-koak:

a) Merkataritza zentroak; multzo horren barruan daude txikizkako merkataritza-gune loka-beak, eraikin bakarraren barruan daudenak eta unitate moduan taxutu, kokatu eta kudeatzen direnak.

b) Merkataritzako esparruak; multzo horren barruan daude txikizkako merkataritza-gune loka-beak, esparru bakarraren barruan daudenak eta merkataritzako irudia, aparkalekua eta beste zerbitzu erkide batzuk konpartitzen dituztenak.

c) Merkataritzako parkeak; multzo horren barruan daude poligono urbanizatueta antolatzen diren merkataritzako zentrozen multzoak, beraien artean mugakideak diren eraikin lokabee-tan kokatuta daudenak eta aparkalekua eta beste zerbitzu erkide batzuk konpartitzen dituztenak.

3. artikulua. Merkataritzako lizentzia berezia.

1. Orokorren, merkataritzako lizentzia berezia beharko dute merkataritza-gune handien instalazio, zabalkuntza edo aldarazpenek.

2. Foru lege honen 2.1. artikuluan ezarri denarekin bat datozen merkataritza-guneek salmentarako azalera garbia zabaldu nahi badute eta ordu-rako merkataritza-gune handien multzoan sailkatuta badaude, aurrez Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari jakinarazi beharko die; departamentu horrek merkataritzako lizentziaren eskabidea egin dezake baldin eta aurreikusi den zabalkuntza horrek merkataritza-gune handiaren instalazioa eragin zuen merkataritzako lizentzia berezia eman zenean zeuden baldintzak eta inguruabarrak aldarazten baditu.

3. Merkataritza-gune handiaren jarduera aldatzeko, edota saltzeko erak, ustiapenaren titulartasuna edo egiten den marka aldatzen denean, aurrez Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari jakinaraziko zaio eta erakunde horrek merkataritzako lizentziaren eskabidea egin dezake baldin eta aldakuntza horiek merkataritza-gune handiaren instalazioa edo, hala denean, merkataritza-gunearen zabalkuntza eragin zuen merkataritzako lizentzia berezia eman zenean zeuden baldintzak eta inguruabarrak aldarazten baditu.

4. artikulua. Hirigintzako tresnak.

1. Jarduera sailkatuen legedian ezarri den lizentziak emateko prozedura hasi aurretik, honako foru lege honen 2. artikuluan zehaztu den merkataritza-gune handien instalazioak kokatu behar den kokaerari buruzko hirigintzako tresnaren idazkuntza eta onespina beharko du; tresna horren izaera hori kokatu nahi den lurzoruaren sailkapenaren arabera zehaztuko da.

2. Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian nahitaezkoa izanen da Udal Plangintzan edo horren aldarazpen batean aurreikuspena egitea; espediente horren behin betiko onespenerako ahalmena Nafarroako Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari dagokio.

3. Lurzoru urbanizaezinean, Udalaz Gaindiko Eragina duten Arlokako Proiektuetan ezarri den prozeduraren bidez egingen da, hirigintzako legedian ezarri denarekin bat.

5. artikulua. Udal plangintza.

1. Baldin eta, foru lege honen 4.2. artikuluan ezarri denarekin bat, bidezko Udal Plangintzaren Aldarazpena egin behar bada, aplikagarria izanen den hirigintzako araudian ezarriko diren zehaztapen eta dokumentazioarekin batera, eta hasierako onspenari ekin aurretik, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak emanen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, non merkataritzako lizentzia berezia ematea benetakotuko baita.

2. Merkataritzako lizentzia berezi horren emateak ez du esan nahi nahitaezkoa den merkataritza-gune handia instalatzeko baimena tramitatzen den hirigintzako plangintza behin betiko onestea.

6. artikulua. Udalaz Gaindiko Eraginaren Arlokako Proiektua.

1. Baldin eta, foru lege honen 4.3. artikuluan ezarri denarekin bat, Udalaz Gaindiko Eraginaren Arlokako Proiektua tramitatu behar bada, figura honetan ohikoak diren zehaztapenekin eta arauz ezarrita daudenekin batera, Nafarroako Gobernuak Udalaz Gaindiko adierazpena egin aurretik eta gero egingen den jendaurreko erakusketa egin ondoren, ondoko dokumentazioa eskatuko da:

a) Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak emanen duen ziurtagiria, non merkataritzako lizentzia berezia eman dela egiaz-tatzeko.

b) Udal edo, hala denean, merkataritza-gune handia kokatu nahi den udalerrietako Udalen aldeko txostena, kokaera horri eta merkataritza-

gunearen instalazioaren ondorio izaten ahal diren hirigintzako emaitzei buruzkoa.

2. Merkataritzako lizentzia berezi horiek emateak ez du esan nahi nahitaezkoa denik merkataritza-gune handia instalatzeko baimena tramitatzeko den Arlokako Proiektua behin betiko onetsi behar denik.

7. artikulua. Hirigintzako tresnaren behin betiko onespena

1. Merkataritza-gune handiaren ezarpena arautuko duen tresnaren behin betiko onespenean, eskumenak dituen administrazioko organoak, legezketasuna eta egokitasunari buruzko alderdiak ezezik, kokapena eta eskualdearen ikuspegitik izanen dituen lurralde eta hirigintzako ondoreak neurtuko ditu.

2. Behin betiko onespenearen eskumena izanen duen organoak antolamendu hobea eskuratzeko neurri zuzentzaileak eta beharrezko baldintzak ezar ditzake eta horretarako sustatzaileari beharrezko dokumentazioa eska diezaiolke.

8. artikulua. Proiektuak baimentzeko irizpideak.

Merkataritza-gune handien proiektuak baimentzeko ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Kokapena, horretarako eskualde horretako biztanleriaren aldetik udalerririk garrantzitsuena kontuan hartuz, biztanleen gunea den ardatzarekiko gehiegizko urruntasunean erori gabe eta hortik hurbilen dagoen lurralde esparruan kokatuz.

b) Kokatuko den lurzoru horren araubide juridikoarekin bat, lur horien egokitasuna, kasu honetan hirigintza eta ingurugiroaren ikuspegitik.

c) Bide sarearekiko erlazioa, sartzeko eta irteko gurgpilezkoen trafikoaren fluxuen erlazio zuzena bermatuz, fluxu horien eragina nabarmenduko duten bideen ezaugarriak eta baldintzak kontuan hartuz eta, hala denean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren irizpideekin bat.

d) Ur azpiegitura eta hornikuntza eta elektra-energiaren hornikuntza merkataritza-gunearen beharrezko egokitzea.

e) Merkataritza-guneak hartzen duen azalera osoaren eta barneko antolamenduaren arteko erlazio zuzena ondoko alderdi hauetan:

– Hertsiki merkataritzako jardueretarako den azalera eraikia.

– Aparkalekuak eta lorategien aldeak eta gunea askeak.

– Herri lagapenak eta zuzkiduretarakoak.

f) Merkataritza-gunearen multzo osoaren erai-kuntzako elementuen eta urbanizazioaren diseinu arkitektoniko integratua eta egokia, kokatu den inguruko hiriaren eta paisajearen ezaugarriak kontuan hartuz eta, beti, eraikinak izaera adierazgarria eta berezia izanen duela.

9. artikulua. Sustatzailearen betebeharrak.

Edozein kasutan, sustatzailearen betebeharra izanen dira merkataritza-gune handiaren ezarpenak beharko dituen urbanizazio obra guztiak eta baita egin diren inguruaren gaineko ustezko eraginak zuzentzeko gastuak ere.

10. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubi-dea.

Bidezko espedientea tramitatu aurretik, interesa duten pertsonak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarengana, edo, hala denean, merkataritza-gune handia kokatu nahi den udal mugarteko Udalarengana jo dezakete, idatziz, merkataritza-gune hori kokatzeko lur horren egokitasunari buruzko informazioa eskatuz.

11. artikulua. Udalen lizentziak.

Nafarroako Toki Izakiek ez dute jarduera sailkatu, obra, irekiera, lehen atzemate edo merkataritza-gune handi baten instalazio, zabalkuntza edo aldarazpenerako eskatzen ahal diren beste edozein lizentziarik emanen, ezta behin-behinekorik ere, harik eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak merkataritzako lizentzia berezia eman arte.

12. artikulua. Merkataritzako lizentzia berezia emateko prozedura.

1. Foru lege honen 3. artikuluan ezarri den merkataritzako lizentzia berezia emateko Nafarroako Gobernuan eskumena duen organoa Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua da.

2. Merkataritzako lizentzia berezia tramitatzeko aplikatuko den prozedura ondoko hau izanen da:

a) Merkataritzako lizentzia bereziaren eskabide-orria aurkeztu beharko da eta, horrekin batera, foru lege honen 13. artikuluan adierazi den zerrendako dokumentazioa; hori guztia Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari aurkeztuko zaio.

b) Aurkeztu diren eskabide-orria eta dokumentazioa aztertu ondoren administrazioko espediente zuzen tramitatzeko beharrezkotzat jotzen ahal diren dokumentu guztiak eskatzen ahal dira.

c) Dokumentazioa osatu denean, espedientea igorri aurretik, merkataritza-gune handia ezarri nahi den Udalaren, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbararen eta Nafarroako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartearen txostenak bilduko dira.

Halaber, txikizkako merkataritzaren antolamenduari buruzko urtarilaren 15eko 7/1996 Legearen 6. artikulua bigarren atalean adierazi den Lehiakortasunaren Defentsarako Auzitegiaren txostena bilduko da.

d) Txosten horiek jaso ondoren edo horiek igortzeko legezko epeak igaro ondoren, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ebazpen arrazoitua emanen du; ebazpen hori merkataritzako lizentzia bereziaren eskatzaileari eta merkataritza-gune handia ezarri nahi den lurralde horretako Udalari jakinaraziko zaie eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Merkataritzako lizentzia bereziaren eskabide-orriak, hori guztia gora-behera, dokumentazio osoa aurkeztuko denetik zenbatuko den sei hila-beteko epean ebatziko dira. Epe hori igaro eta ez bada egintzarik jakinarazi, ustezko egintzagatik lizentzia eman dela ulertuko da eta horren eraginkortasuna administrazioko prozedura erkideari buruzko estatuko legedian ezarri denaren arabera araupetuko da.

4. Berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka administrazioko errekurtsio arrunta jartzen ahal da Nafarroako Gobernuaren aurrean, legedia orokorrean adierazi den administrazioarekiko auzibide-errekurtsioa baino lehenago.

13. artikulua. Dokumentazioa.

Foru lege honen 3. artikuluan adierazi den merkataritzako lizentzia bereziaren eskatzaileek ondoko dokumentazio honen bi ale aurkeztuko dituzte:

a) Merkataritzako lizentzia bereziaren eskabide-orria.

b) Eskatzailearen nortasunari buruzko ziurtagiriak.

– Baldin eta eskatzailea pertsona fisikoa bada, ondoko hauek: nortasun agiri nazionalaren eta identifikazio fiskalerako zenbakiaren fotokopia, eta, hala denean, bere legezko ordezkariarena eta jakinarazpenak egitearen ondoretarako duen helbidea.

– Baldin eta eskatzailea pertsona juridikoa bada:

– Bidezko Erregistroan inskribatuta dauden Eraketa eskrituren fotokopia, notarioak edo administrazioak benetakotua, eta baita gertatu diren aldarazpenenak ere; dokumentu horietan, hala denean, akziodunen egungo osaketa azalduko da.

– Ordezkariaren datuak, aurreko puntuan adierazi diren eduki horiekin, eta erakundearen eskuordetzaren izaera adieraziko dute eta, hori, zuzenbidean onartuta dauden eretatik edozeinetan benetakotu beharko dute.

c) Egin nahi den jarduera horri buruzko memoria bidezkotzailea; memoria horretan ondoko hauek azalduko dira:

– Ezarri, zabaldu edo aldarazi nahi den merkataritza-gune motaren deskribapena, saltzeko erak, produktu mota, horiek merkataritza-gunean izanzen duten kokapena, kutxen kopurua, ohikoenak diren merkataritzako formulak, edo, baldin eta salmenta teknika berriak badira, horien deskripzioa.

– Azaleren koadroa, non salmentarako edota erakusketarako aretoa, kutxen lerroak, labeak eta kamarak, biltegiak, zerbitzu teknikoak, jendearentzako eta langileentzako zerbitzuak, igarobideak eta sartzeko ataurreak adieraziko baitiren.

– Baldin eta merkataritza-gunea talde izaera duen merkataritzako ekipamendu, merkataritzako zentro, esparru edo parke bateko atala bada, integrazio fisiko eta funtzionalaren era, horren ezauzgarri nagusiak deskribatuz.

– Merkataritza-gunea ustiatuko duen merkataritzako operadorea eta horren ikurra, lehiakortasuna edo monopolioaren defentsarako horren ekarpena zehaztearen ondoretarako.

– Langileen kopurua, eta horien artean zeintzuk duten kontratu mugagabea, zeintzuk aldi baterakoa, edo praktiketan daudenak, etab.

– Aurreikusi den inbertsioa, bidezko azterlan ekonomikoarekin.

d) Merkatuaren azterlana, bezeroak erakartzeko aldea, horren gaineko merkatuko ustezko kuota eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa adieraziko dituena.

e) Ezartzeko egutegia, fase bakoitzean garatuko diren epeak adieraziz.

14. artikulua. Iraungitasuna eta luzapena.

1. Merkataritzako lizentzia berezietan merkataritza-gunearen instalazioa, zabalkuntza edo aldarazpena egiteko gehieneko epea ezarriko da eta ematen denetik zenbatuko da; lizentzia horietan berariaz adieraziko da epe hori instalazioa, zabal-

kuntza edo aldarazpena egin gabe igarotzen bada iraungi eginen direla.

2. Baldin eta merkataritzako lizentzian ez bada iraungitasun hori zehaztu, uste izanen da urte batekoa izanen dela lizentzia hori eman den unetik aurrera. Dena dela, baldin eta epe horren barruan ez bada bidezko hirigintzako tresna behin betiko onetsi, urte bateko epe hori behin betiko onesten hori gertatuko den unetik zenbatuko da.

3. Baldin eta arrazoi bidezkoak badaude, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak instalazioa, zabalkuntza edo aldarazpena egiteko epeen luzapenak eman ditzake, horretarako lizentziaren titularrak epea bukatu baino bi hilabete lehenago berariaz eskatu ondoren. Lizentziaren luzapena ezin da era baliogarrian eskatu gutxienez epearen erdia ez bada igaro.

4. Lizentziaren iraungitasuna Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak adieraziko du, interesatuak adierazi behar duena entzuteko hamabost eguneko epea bukatu ondoren. Lizentziaren iraungitasunaren adierazpenak jarduketak artxibatzea ekarriko du eta, ondorioz, interesatuak, baldin eta oraindik foru lurraldean merkataritza-gune handi bat instalatu, zabaldu edo aldarazi nahi badu, berriz ere merkataritzako lizentzia berezi berria emateko eskatu beharko du.

15. artikulua. Merkataritzako lizentzia berezia emateko irizpideak.

1. Foru lege honen 3. artikuluan araupetu den merkataritzako lizentzia berezia ematea edo ukatzea 16. artikuluan ezarri den Merkataritza-gune Handien Lurralde Ereduari egokitzea kontuan hartuta erabakiko da.

2. Hori gora-behera, ondoko elementu hauek haztatu beharko dira:

a) Kokapen berriak ukitzen duen alde horretan merkataritzako ekipamendu egokia egotea. Lurralde esparru batek merkataritzako ekipamendu egokia duela ulertuko da baldin eta eskualdeko biztanleriari, edo, hala denean, epe ertainerako aurreikusi den biztanleari kalitate, aniztasun, zerbitzu, prezio eta ordutegi baldintza egokietan artikuluen eskaintza bermatzen bazaio, egungo egoerarekin eta txikizkako merkatuaren garapen eta eguneratze joerekin bat.

b) Eskualdeko merkataritzako egituraren duen eragina; hori neurtzeko kontuan hartuko da merkataritza-gune handi berri bat zabaltzeak zer ekarriko dion lehiakortasun askeari eta aldeko denda txikietan izanen dituen eragin negatiboak.

c) Eragin alde horretan sendotuta dauden merkataritzako aldeak berpizteko proiektuan nola lagunduko duen.

d) Sortuko diren gainbalioak eragin aldeko merkataritzako egituren hobekuntza eta egunera-tzean berriz inbertitzea eta, bereziki, hiriguneetako merkataritza berpizteko direnak.

16. artikulua. Merkataritza Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua.

Nafarroako Gobernuak Merkataritza Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua eginen du; eredu horretan foru lege honen 15. artikuluan adierazi diren irizpideak aplikatzea eta zenbates-tea zehaztuko da eta horren helburu zehatzak hauek izanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitatean eskura dagoen merkataritzako eskaintza ebaluatzea, hala merkataritza-guneen kopuruari dagokionean nola salmentarako azalera osoari, jarduteko lurralde eta jardueren arloetan banakatuta.

b) Nafarroako biztanleriak merkataritzan gastatu dezakeena ebaluatzea, hori ere jarduteko lurralde eta jardueren arloetan banakatuta.

c) Lurralde esparru bakoitzeko merkataritzako ekipamenduen mentsak eta superabitak ezartzea, abiaburutzat fakturazioaren parametro erkatuak hartuz, eta horrela egon dauden eskaintza eta eskaria aztertzeke aukerak izatea.

17. artikulua. Onesteko prozedura.

1. Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Merkataritza Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua sustatuko du eta horren behin betiko onespina Nafarroako Gobernuari dagokio, aurrez Lurraldeko Antolamenduaren Batzordeak eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarak eginen dituzten derrigorrezko txostenak jaso ondoren.

2. Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Lurralde Eredua egiteko, berrikusteko edo ebaluatzeke beharrezkoak diren merkataritzako banaketari buruzko azterlanak egitea sustatuko du. Helburua hori dela, hitzarmenak ezar ditzake edo lankidetzak formulak itundu Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarekin edo arloari lotuta dauden beste erakunde batzuekin.

3. Artikulu honen 1. zenbakian adierazi den eran onetsi ondoren, Lurralde Eredua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

18. artikulua. Indarraldia eta berrikuspena.

1. Merkataritza-gune Handien Lurralde Ere-muaren indarraldia mugagabea izanen da eta gutxienez lau urterik behin berrikusiko da, eta onespenerako ezarri den prozedura bera beteko da. Dena dela, horren ebaluazioak egiten ahal dira, osoak zein partzialak, bi urterik behin.

2. Hori gora-behera, berrikuspen edo ebaluazioa egiten denean ondoko hauek hartuko dira kontuan:

a) Biztanleen erosteko eta kontsumitzeko ohituraren bilakaera.

b) Merkataritzako eskaintzaren osaketan merkataritza-gune tipologien bilakaera.

c) Merkataritza-gune handien ezarpenak hiriar-teko merkataritzan sortuko dituen eraginak, bereziki gune historiko tradizionalak, zertarako-eta berriaz horien merkataritzako hustuketaren fenomenoak ekiditeko.

19. artikulua. Lizentzien ematea etetea.

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak merkataritzako lizentzia berezien ematea deusezteara erabaki dezake Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua egitea edo berrikustearen ondoretarako. Etendura horrek alde jakin bat edo gehiago edo Lurralde Ereduaren esparru osoa uki dezake.

Erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta, gutxienez, Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan argitaratuko da.

3. Aurreko zenbakian ezarri den etendura hori, edozein kasutan, argitaratu eta bi hilabeteko epean iraungiko da. Halaber, deusezpen hori Lurralde Ereduaren edo, hala denean, horren berrikuspenaren onespenerarekin iraungiko da.

4. Deusezpen horren ondoreak iraungi ondoren ezin da, bi urteko epearen barruan eta helburu berberarekin, deusezpen berririk erabaki.

20. artikulua. Kautelazko neurriak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, urratzea izan gabe eta bidezko administrazio-espeditenteari ekin aurretik, merkataritza-guneak ixteko erabakia har dezake baldin eta handiak izanik merkataritzako lizentzia berezirik ez badute edota, halaber, horien jardupidea deusez dezake harik eta delako lizentzia hori eskuratu dutela benetakotu arte.

21. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

1. Foru lege honetan ezarri denaren aurkako urratzeak dira:

a) Aurrez eskuratu behar den merkataritzako lizentzia berezia ez edukitzea, ondoko kasu haue-tan:

– Merkataritza-gune handien instalazioa, foru lege honen 2. artikuluan ezarri denarekin bat.

– Merkataritza-guneen azalera zabalkuntzak, baldin eta 2.1. artikuluan adierazi diren mailak gainditzen badituzte.

b) Foru lege honen 2.1. artikuluan adierazi dena betez ordurako merkataritza-gune handiak diren eta salmentarako azalera zabaltzen duten merkataritza-guneek, aurrez ez badiote Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari jakinarazi.

c) Jardueraren aldakuntza, merkataritza-gune-aren aldarazpen edo ustiategiaren edo jarduera egiten den titulartasunaren aldaketak egin aurretik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari ez jakinaraztea.

2. Foru lege honen 20. artikuluan ezarri dena gora-behera, artikuluan honen 1. zenbakian adierazi diren urratzeengatik 1.000.000 eta 100.000.000 pezeta arteko isuna jarriko da. Zehapenaren zenbatekoa graduatzeko merkataritza-gunearen salmentarako azalera, urratzaileak merkatuan duen hedakuntza eta jarduketara urratzaile horren bidez legez aurka eskuratu duen mozkinaren munta hartuko da kontuan.

3. Zehapenak ezartzeko eskumenak dituen organoa, aurrez bidezko zehapen espeditentea hasi ondoren, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaria da.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko denetik zenbatuko den sei hilabeteko epean, 17. artikuluan adierazi den Lurralde Eredua eginen du.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa.- Eten egiten da merkataritzako lizentzia bereziak ematea harik eta Merkataritza-gune Handien Lurralde Eredua onetsi arte. Dena dela, etendura hori, edozein kasutan, foru lege hau indarrean jarriko denetik zenbatuko den sei hilabete igaro ondoren iraungiko da.

Bigarrena.- Foru lege hau indarrean jarriko denean merkataritza-gune handia ezartzeko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean ezarri diren jarduera sailkatuen kontrolerako lizentziaren eskabidea aurkeztu duten pertsona fisiko eta juridikoek hilabeteko epean honako foru lege hone-

tan adierazi den merkataritzako lizentzia berezia eskatu beharko dute.

Hirugarrena.- Foru lege hau indarrean jarriko denean merkataritza-gune handia ezartzeko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean ezarri diren jarduera sailkatuen kontrolerako lizentzia eskuratu duten pertsona fisiko eta juridikoek ez dute nahitaez merkataritzako lizentzia berezia eskatu behar.

Xedapen indargabetzaileak

Lehenengoa.- Indargabetu egin dira foru lege honetan ezarri denaren aurkako kontraesanak dituzten edo honen aurka dauden lerrun bereko edo baxuagoko arauak.

Bigarrena.- Berariaz indargabetuko da merkataritzako instalazio handien lurralde eta hirigintzako ezarpena araupetzen duen maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretua.

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariari honako foru lege hau burutzeko eta betearazteko beharrezkoak diren arau guztiak eman ditzaten.

Bigarrena.- Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion osoko emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Proiektu hori 1998ko azaroaren 19ko 88 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

AURKEZTURIKO OSOKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

Zioak: proiektua gaitzesten dugu, uste baitugu Zerga, Parlamentura igorri den horretan, ez dela gauza horrelako zerga baten helburuak modu eraginkorrean lortzeko; eta, ongizatearen gizartea eraikitzeko prozesuan hala behar luke.

2. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Partido Democrático de la Nueva Izquierda-k osoko emendakina aurkeztu dio Gobernuak Biltzar honi igorritako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Lege proiektuari, eta Gobernuari itzultzea proposatzen du, Gobernuak berriz landu dezan. Proiektua itzultzeko arrazoia zera da: zerga-zamaren banaketa ez-bidezkoa areagotzen du eta Gobernuak proposatutako erreformak, besteak beste, ondoko ondorio kaltegarriak izanen ditu:

Foru Ogasunaren dirusarrerak, urtean, zazpi eta hamar mila milioi artean gutxituko dira; eta horrek gizarte-babeserako zenbait politika arriskuan jar litzake, edo horien kalitatea hobetzea ekidin.

Azpiegieturarako inbertsioak eta ingurugiro politiketarako inbertsioak zailago izanen dira; eta bi horiek, beharrezkoak dira Nafarroaren garapena finkatzen jarraitzeko.

Aurkeztu zaigun erreformak Zergaren aurrerakortasuna gutxitzen du, modu adierazgarrian gutxitzen du errentarik altuenek ordaindu behar dutena (% 53tik % 47ra). Planteamendu berriak zergadun multzo hori asko mesedetu du; horietako batzuek, Zerga ordaintzerakoan, milioia eta gehiagoko gutxitzeak izanen dituzte.

Aurkeztu zaigun sasierreformak ez du konponetzen soldatek Zergan duten partaidetza neurrigabea.

Enpresarioek, profesionalek eta kapitalak zerga-ordainketa txikiagoak izateak eragiten duena da soldatek neurrigabeko partaidetza izatea PFEZean; horrela, Zergari, nominen gaineko zerga ere deitu izan zaio. Planteamendu hau are larriagoa da plusbalioak zergetatik at uzten jarraitzen baita eta, azken urte hauetan, enpresarioen errenten zerga-ordainketa ere hobetu egin baita.

Arrazoi horiengatik eta beste batzuegatik, Nueva Izquierdak Foru Lege Proiektu hau Gobernuari itzultzea proposatzen du, uste baitu PFEZaren reforma beharrezkoa dela baina ez Gobernuak igorri duen proiektu atzerakoia.

3. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Proiektuak dakarren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren reforma erabat da desgokia, diskriminatzailea eta askieza; gainera, kongruentzia arrastorik ere ez du, eta ez dio inongo irizpide koherenterik jarraitzen. Esan daiteke emaitza inongo funtsik ez duen hibridoa dela.

Ustekozko erreformak ez die erantzunik ematen, ezta hein txikienean ere, zeuden itzaropenei, hau da, indarrean dagoen arautegiari egotzen zaizkion arazo handiei aurre egiteko zeuden itzaropenei; izan ere, ondoko arazoak egotzi zaizkio indarrean dagoen arautegiari: lanaren errenten diskriminazioa, kapitalen errentei buruzko neutraltasun eza, kontrolatu gabeko errenten zerga-iruzurra, araute-

giaren gehiegizko konplexutasuna, eta abar. Hots, benetako erreforma egiteko aukera galdu da.

Hobekuntza teknikoak alde batera utzita, horiek soilik ez dira nahikoa erreforma deitzen dena justifikatzeko; eginiko aldaketek ez diote inongo irizpide koherenterri jarraitzen.

Estatuan planteatu den erreformak, ez neurri berean, baina, orokorrean, zergadunei zergazama gutxitu die; ordea, proiektuan dagoen erreformak, hainbat eta hainbat kasutan, Zerga honengatik zerga-ordainketa handitu egiten du eta ez errentarik handienetan nahiz eta gizarteari adierazi nahi zaiona besterik izan.

Gobernuaren proiektuarekin, seme-alabak dituzten zergadun nafarrek Estatuan baino gehiago ordainduko dute. Lanaren errenta 1.700.000 pezeta baino txikiagoa dutenek, osotara, indarrean zegoen legediarekin zuten kenkaria baino txikiagoa dute.

Bizitzeko gutxieneko edo gutxieneko pertsonala deiturikoak ez du benetako edukirik: helburua errenta erabilgarria laguntzea bazen, ezin da ulertu nolatan ez diren zenbatuko zenbait murrizte, hala nola, seme-alabak eta beste famili baldintza batzuegatiko murrizteak; errealitatean, horrek dituen ondorio berak ditu oraingo tarifa tartearik zero karga-tasa izateak. Gauza bera da oinarria 550.000 pezetatan murriztu dela esatea edo tarifa zero karga-tasa duen 550.000 pezetatara tartean hasten dela esatea.

Gainera, erreforma honek famili unitateengan efektu atzerakorra du, ezkontideetako batek errentarik ez badu edo errenta horiek oso txikiak badira. Proiektuak orain kuotan egiten den kenkaria kendu eta, horren ordez, oinarrian egiten du murrizketa; horrek, efektu erabat atzerakorra eragiten du, errenta maila altuenak mesedetzen baititu.

Proiektuak ez du egiten ahalegin egokirik lanaren errenteei dagokienean, eta errentarik txikiak kaltetzen ditu.

Zergaren tarifa berriak zero tartea kentzen du, eta, oraingo egoerarekin alderatuta, oso gutxitze txikia dakar; gutxitze hori, gainera, 9.000.000 milioitik gaindiko errentak dituztenentzat da eragingarri. Errenta nominalak ez kaltetzearren, ez da tarifaren deflazioaririk egin; horrek, are gutxiago nabaritzen diren efektuak eragiten ditu.

Bestalde, plusbalioen zerga-ordainketa sistema irmotu da; aseguru kontratuen etekinak berriaz arautu eta asko mesedetzen dira; horrela, are gehiago mesedetzen dira kapitalaren errentak. Aldiz, pertsona minusbaluatuei buruzkoak ez dira

berriaz arautzen, eta langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordain salbuesiei mugak jartzen zaizkie, hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartu gabe. Guraso bakarreko famili unitateei ere ez zaizkie aplikatzen egungo araudian zergak batera ordaintzeagatik aplikatzen diren murrizteak.

Orohar, oinarririk gabeko erreforma da, inkoherentea eta, agerikoa denez, inprobisazioaren ondorio. Eta, artifizialki, aurkeztu nahi da zergazamaren gutxitze orokorra dela; gutxitze hori, ordea, ez da ez benetakoa, ezta zuzena ere.

4. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, PFEZi buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea eskatu du, ondoren azalduko diren arrazoiengatik:

– PFEZen aldaketak ez dira PFEZen erreforma, inola ere. Gobernuak berak aipatu du -proiektuaren oroit-idazkian-, 1992ko erregulazioa egokitu behar zaiola ekonomia-, finantza- eta gizarte-errealitate berriari, eta baita gure inguruko tributu-sistemen bilakaerari ere; Lege proiektuak, hala ere, aldaketa batzuk besterik ez ditu proposatu: halako nahasketa arraro bat, Diputatuen Kongresuak onetsi duen erreformaren eta egungo foru arautegiaren artean.

Hala, bada, errentaren gaineko zergapetze pertsonala eguneratzeko aukera zapuzturik geratu da; hau da, zergadunen ahalmen ekonomikoa izaera progresibodun zerga baten menpe jarri, eta hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzeko gai den zerga taxutzeko aukera.

– PFEZen aldaketek betiko eskumaren zerga-politika dute oinarri, eta azken eredu bidegabeago baterako urratsak ematen dituzte, errenta altuenei egiten dietelako mesede.

* Bizitzeko gutxienekoa sartzeak berarekin dakarren ondorioa da errenta handiagoak eta, beraz, tasa altuagoak dituztenak mesedetzea. Horixe gertatu da, hain zuzen, arestian zero tasa zuen zatia (gutxieneko salbuesia) kendu, eta kuotaren kenkarien zati handi bat zerga oinarriaren urripen bihurtu direlako. Hala, norbere eta familiarren gorabehera berberetan zeuden guztiei tratamendu berbera eman ordez, bidegabe mesedetzen dira egoera ekonomikoa hobea duten haiek.

* Bizitzeko gutxienekoa da proiektuak sartu duen aldaketarik garrantzitsuen eta atzerakoien; izan ere, norbere eta familiaren gorabehera berberetan, dirusarrera handiagoak dituen gutxiago ordaintzen baitu, proportzioan.

* Zatien kopurua gutxitzeak, zeina errazte faltsu batekin estali eta zuzenetsi nahi baita, errenta oso ezberdinei zerga-tasa berbera ezartzea ahalbidetzen du. Ondorioz, zati berri bakoitzaren barruan errentarik altuenak dituztenei egiten zaie mesede, berriz ere.

* Errenta altuen tasa marjinala puntu bat gehiago gutxitu da, errenta apalen tasa marjinala baino. Gehieneko tasa, 53tik 47ra jaitsi da; gutxienekoa, aldiz, 20tik 15era, besterik ez.

– PFEZen aldaketak Nafarroako Ogasunaren norabide historikoa hautsi du, zeina aitzindaria izan baita zerga-kontuetan, araubide komunari begiratu gabe; izan ere, osoko zerga-zama handiagoa oinarritzat harturik, Nafarroako zergadunei zerga-tratamendu berezia eskaintzeko bidea ematen baitzuen.

Europa guztian zergak elkarri egokitzea beharrezkoa bada ere, Nafarroak bere herritarrak araubide komunekoak baino okerrago ezin dituela tratatu erabaki bada ere -ezin baikara zerga-paradisuen aurkakoa bihurtu-, horrek ez du zuzenesten Nafarroaren eskumen historikoari uko egitea; alegia, bere irizpideak erabiltzeari uko egiteari, arlo honetako legeak egiterakoan.

Azken urteotan arlo honetan gertatu den ekimen-galtzea ere gero eta kezagarriagoa da.

PFEZen aldaketa hauekin, nafar bakar batek ere ez du araubide komunean baino gutxiago ordainduko, eta, are gehiago, egun baino gehiago ordainduko duten zergadunak izatea ere posible da. Sanz Lehendakariaren gutxiengo-gobernuak zergeri dagokienean, nafar herritar bakar bat ere ez da Estatuan baino okerrago aterako, esan badu ere, seme-alabak dituzten aitortzaileak, araubide komunekoak baino okerrago ateratzen dira, egia esan; erdiko zati edo tramoak ere kalte egiten dira: baxuenak eta altuenak baino ez dira irabazle ateratzen, teoriarik... Laburbilduz: ez dakigu nortzuk ordainduko duten gutxiago, eta nortzuk ordainduko duten gehiago, Gobernuak honi buruz egin zituen lehenengo proposamenduan 55.000 aitortzaile kaltetu aipatzen baziren ere, Estatuarekin konparatuz gero.

Departamentuak dituen datuetatik kanpoko azterketa eginez gero, zaila da jakiten -hala aipatu dugu, jada- proposatu diren aldaketek zer eragin izanen duten aitortzaile bakoitzarengan. Hala ere,

zerga-oinarriaren kenkaria ezabatzeko neurriak kalteak erakarriko dizkio aitortzaile batzuei. Neurri hori, gainera, kontraesanean dago araubide komunari egokitzen gatazkiolako baieztapenarekin; izan ere, 375.000 pezeta bitarteko kenkaria utsi dio Estatuak.

– Ez dakigu PFEZen aldaketen benetako kostua zein den. 7.000 milioi pezeta aipatu badira ere, arazoak ez du batere argi ematen, tarifa deflaktatu ala ez horrekin lotzen badugu, batez ere. Gehiago ematen du zergaren tarifaren jaitsiera kontrolgabearen aurrean gaudela, eta haren kostua ezin dela objektibitatez finkatu; halaber, bizitzeko gutxienekoaren eta kuoten murrizketen arteko nahasketa baten aurrean geundeke, eragin ekonomiko argirik gabe.

– Lege proiektuak proposatu dituen PFEZ-aldaketek ez dute defizit publikoa murrizteko helburua, Euroaren baitan lasai mugitu ahal izateko... ez eta Foru Ogasunaren egonkortasuna indartzeko ere, eta ez dituzte bermatzen gure ongizate-estatuaren finantzaketa, azpiegiturako inbertsioak, I+G inbertsioak, enplegu politiketakoak, garapen txikiko herriekiko elkartasun eta lankidetzakoak...

– PFEZen aldaketek ez dute balio zerga errazgo kudeatu ahal izateko, eta zerga-erregulazio-erregulazio aldian hasiera emanen diote.

Proiektuak xede dituen aldaketak zuzenesteko erabiltzen den arrazoietako batzuk kudeatzeko erraztasunarekin daude lotuta. Ez dago argi horren kointental eta zatikako den aldaketa batek ez ote duen zergaduna are gehiago nahasiko, gauzak erraztu ordez. Edonola ere, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak berak dauka aldaketa horiei egokitu beharra; aldaketa horiek, ordea, aldi baterakotzat jo behar dira, erdietsi duten gizarte-eta politika-irizkidetasun txikia lortu dutelako.

– Lege proiektuak proposatu dituen PFEZ-aldaketek ez dute Nafarroako gizarte-indarren aldezen jaso; ez du Gizarte eta Ekonomia Kontseiluaren aldezen izan, non UGT, CCOO, ELA eta LAB erabat kontra agertu diren. Nafarroako Enpresarioen Elkarteak ere hauxe esan du: Lehen aldia da Nafarroako historian, zergadun jakin batzuek araubide komunekoak baino tratamendu okerragoa dutela.

Horren guztiaren ondorioz, PFEZaren benetako aldaketaren alde dago Parlamentuko Talde Sozialista: laneko errenten fiskalitatea gutxitzea ekarriko duen aldaketa baten alde. Estatistiken arabera, lanbide- eta enpresa-errentetan zerga-iruzur boltsa handiak daude; aldiz, lanaren errentek zerga-presioaren zama geroz eta

gehiago jasan behar izan dute, azken urteotan. Hauxe eskatzen du horrek: errenta guztiei dagozkien ekarpenak bironkatzea; diru-sarrerak nomina baten bidez hartzen dituztenen zerga-zama arintzeko, horrela.

PFEZen egungo aldaketak onestea atzera pausoa dateke benetako Erreformatarako bidean, eta, gure ustez, Erreforma horrek bat etorri behar du egungo aurrekontu-beharrizaneekin —euroarekin bat egitekotan gaude—; eta zergak progresiboago eta zuzenago izan behar du laneko errentekiko —beste errenta batzuekiko baino gehiago—, eta neutralago, ekonomiaren aldetik.

Parlamentuko Talde Sozialistaren ustetan, aukera bat galdu da etorkizuna duen zerga-erreforma egiteko: zergak jaistearekin eta guzti —jaitziera neurtua, neurgarria eta arriskurik gabea bada ere—, erreforma berritzailea, Nafarroako tradizioaren ildotik. Hori egin ordez, zerga-sistema desitxuratu, eta zerga-ezegonkortasuneko aldi bati eman zaio hasiera.

Horiek horrela, proiektua Gobernuari itzultzea eskatu du Talde Sozialistak.

5. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga tresnarik garrantzitsuenetakoa da bai zerga-bilke-

tarako, bai aberastasunaren birbanaketarako; edo, hobe esanda, hala behar luke. Hala ere, aurkeztutako proiektuarekin UPN eta NDEren arteko hitzarmenaren ondorio diru gutxiago biltzeaz gain, zergak duen izaera birbanatzailea galtzen da; horrela, erreforma deituriko hori zerga-erreforma atzerakorra da, errentarik altuenak mesedetzera zuzendua, soilik.

Herri Batasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzen du, eta Gobernuari premiatzen du Parlamentura beste proiektu bat igor dezan, eta hor, besteak beste, hurrengo alderdiak jaso ditzan:

a) Ezar ditzala konpromiso eta ekimen zehatzak zerga-iruzurrari aurre egiteko.

b) Ekitate printzipio eragingarria egin dezala, alde batera utzita errenten jatorria, eta konpon dezala egitezko bikoteek jasaten duten bereizkeria.

c) Zergaren aurrerakortasuna eutsi eta areagotzera zuzendua egon dadila, eta zergak, beraz, gehien duena gehiago zergapetu dezala.

d) Zerga-bilketa Nafarroaren beharren arabera izan dadila; horrela, zenbait arazoei aurre egin ahalko zaie, hala nola, langabezia, gizarte-bazterkeria edo gure gizarteko sektore handiek duten etxebizitza falta.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bortxakeria sexista saihesteko premiazko neurriei buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bortxakeria sexista saihesteko premiazko neurriei buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Giza Eskubideen Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

MOZIOAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Giza Eskubideen Batzorde Bereziaren aurrean, eztabaidatu, bozkatu eta –onetsi egiten badu– Bozeramaileen Batzarrari igor diezaion:

1.- Batzorde honek Nafarroako Gobernua premiatzen du 3 hilabeteko epean bortxakeria sexista saihesteko premiazko neurriei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan Parlamentuan.

2.- Foru Lege proiektu hori eginen da Bortxakeria Sexistaren aurkako Emakume Plataformak eginiko eta idazki honekin batera doan proposamena oinarri gisa hartuz, eta proposamen horretan jasotako neurriak, gutxienez, aurreikusiko ditu.

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Adierazpen politikoa, hainbat eskubide-urrapen ustez jasan dituzten emakume venezuelarrekiko elkartasuna agertzeko

BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko azaroaren 17an eginiko bilkuran, ondoko Adierazpena onetsi zuen.

Lehena. Hainbat eskubide-urrapen ustez jasan dituzten emakume venezuelarrekiko elkartasuna agertzen du Nafarroako Parlamentuak; gainera, emakume eta inmigrante izateak gertakari onorioak larriagotzen ditu.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak honako premiatzen du: Tuterako Epaitegian instruitzen ari den "JJ" klubari buruzko epaiketa-prozesu osoak

irauten duen bitartean, emakume horiek hemen geratuko direla berma dadila, egoki diren epaiketaprozedurak amaitu eta behin betiko epai edo ebazpena eman arte; baita ere, horretarako beharrezkoak diren neurriak har daitezela.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua –zehazki, Gizarte Ongizate Departamentua eta Emakumearen Institutua– premiatzen du arreta berezia eskain diezaaien pertsona horien gizarte-beharrizanei, gizatasun-arrazoiak kontuan hartuz, baliabide ekonomikorik

gabe eta gizarte- nahiz osasun- laguntzarako sistematik kanpo egonen baitira gure erkidegoan.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki hau bidaliko die Gobernuak Nafarroan duen Dele-

gatuari eta Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 1998ko azaroaren 17an.

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Adierazpen politikoa, guarani herriari buruzkoa

BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko azaroaren 24an eginiko bilkuran, ondoko Adierazpena onetsi zuen.

Enrique Camargo, Boliviako Guarani Herriaren Asanbladako lehendakari jaunak, Iruñera egin duen bisitaren bitartez, eta Boliviako Chaco eskualdean Medicus Mundi Navarra Gobernuz Kanpoko Erakundeak abiarazi dituen proiektuen bidez, Boliviako hirurogei milatik gora guaraniak zein egoeratan bizi diren jakin ahal izan dugu. Hori kontuan izanik, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

Lehena. Elkartasuna eta atxikipena agertzea Boliviako guarani herria egiten ari den funtsezko giza eskubideen aldeko borroka baketsuarekin, zeinak xede baitu guarani erkidegoko gizon eta

emakume guztiek bizitza duina eduki ahal izateko oinarritzkoak diren baliabide eta zerbitzuak eskuratzeari.

Bigarrena. Chuquisaca Departamentuan zazpihunik gora guarani familia pairatzen ari diren egoera bereziki salatzea; izan ere, produkzio-harreman feudal bati loturik egonik, ezin baitituzte funtsezko giza eskubideak gauzatu.

Hirugarrena. Erabaki honen kopia bidaltzea Espainiar Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari, Boliviak Madrilen duen Enbaxadara eta Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari.

Iruñean, 1998ko azaroaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Adierazpen instituzionala, bortxakeria sexistaren aurkako mundu mailako eguna dela-eta

BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko azaroaren 24an eginiko bilkuran, ondoko Adierazpena onetsi zuen.

Nafarroako Parlamentuak, bortxakeria sexistaren aurkako mundu mailako egunean, ondokoa adierazten du:

Lehena. Elkartasuna adierazten du bortxakeria fisiko zein psikiko eta sexualak jasaten dituzten emakumeekin.

Bigarrena. Gizonak emakumearen aurka erabiltzen duen bortxakeria deitoratzen du, eta jokae-rra horiek justifikatu edo garrantzi gutxiagokotzat agertu nahi dituztenak gaitzesten ditu.

Hirugarrena. Onartezintzat jotzen du gure gizartean bortxakeria sexistako zenbait jokamolde onartzen jarraitzea; besteak beste, izaera sexista

argia duten argudio soziokulturalak erabiliz justifikatu nahi direnak.

Laugarrena. Dei egiten dio gizarte osoari eta, bereziki, gizonei, pertsonak berezko dituzten eskubideak errespetatu eta errespetaraz ditzaten; izan ere, uste dugu ez dugula gizarte justu bat erdietsiko bi sexu-etako pertsonen arteko egiazko berdintasuna eta berdintasun eraginkorra eduki ezeari.

Bosgarrena. Bere gain hartzen du pertsonen arteko berdintasuna eta errespetua lortzeko aurreragaitzeko behar diren legegintza, hezkuntza eta gizarte mailako neurriak hartzeko ardura, bortxakeria sexista gure gizartetik erauzteko.

Iruñean, 1998ko azaroaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduen babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko aurrekontuetan bada hainbat kontusail, Osasun Departamentuan, langileak ordezkatzeko kontratazioak egiteko xedearekin. Hurrengo lerro-zenbakiak dituzte:

– Anbulatorioen laguntza koordinatzeko zuzendariorde, 17610-2.

– Nafarroako Ospitalea, 18250-1.

– Bideko Ama Birjina Ospitalea, 18740-6.

– Ubarmin Klinika, 19240-0.

– Tuterako Osasun Barrutiko Zuzendaritza, 19700-2.

– Lizarrako Osasun Barrutiko Zuzendaritza, 20630-3.

– Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza, 21550-7.

Hurrengoak jakin nahi ditut goian aipaturiko bakoitzari buruz:

- Aurrekontu-zenbatekoa eta betetze-egoera, 1998ko azaroan.

- Euskalduntzea dela-eta, ordezkapena eskatu duten pertsonen kopurua, eta baita lanbide-maila ere.

- Zenbat pertsona erabili diren ordezkapenetrako, eta zer kontratu-mota.

- Ordezkatuak langileak hautatzeko erabili sistema. Deialdia eta baldintzak.

- Euskalduntzea eskatu duten pertsonen zenbatekoa; zehatz bitez euskalduntzea dela-eta ordezkatu direnak. Orobat, onartu gabe geratu direnak eta zergatik.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamendua-
ren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urriaren 20ko 11/1992, Legeak 34. artikuluan, Osasun Departamentuko langileen sustapen-formulak ezarri ditu.

Dirudienez, zirriborroa aztertzen ari dira Administrazioako lanbide-karrera arautzeko.

Hori dela-eta, hurrengoak ezagutu nahi ditu Parlamentari honek:

- Osasun Departamentuak lanbide-karrerarako espezialitateak izendatzeko dituen irizpideak, espezifikazio zehatzaren arabera.

- Lanbide-karrerarekin lortu nahi diren helburuak.

- Foru Gobernuak planteatuko al ditu lanbide-karrera izan dezaketen beste lanbide batzuk? Zeintzuk?

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruzko galdera

PEDRO ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAKEGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Antuñano Zárragak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari hurrengo galdera egiten dio idatziz erantzun dezan.

1998ko azaroaren 2ko 131. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Osasun kontseilariak emandako 138/1998 Foru Agindua, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa.

Foru Aginduaren arabera, eriarri gertatzen bazaio 180 egun baino gehiago itxaron beharra, ebakuntza beste ospitale batean egin ahal izanen zaio; alegia, Erabilera Publikoko Laguntza Sareko beste ospitale publiko edo pribatu batean.

Nafarroako Osasun Sistema Publikoak berrikitan hartu duen neurria dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zenbat eri dago, gaur egun, 180 egun baino gehiagoko itxaron aldiarekin?

2.- Zer espezialitate edo kirurgia-zerbitzuz, eta zer ospitalek dute atzerapen hori itxaron-zerrendetan? Aldi berean, zenbat eri dago horietako bakoitzean?

3.- Neurri berezirik hartu al da giza- eta gauza-baliabideen aldetik, aipatu itxaron-zerrendak dituzten espezialitateetan? Hala bada, zeintzuk dira?

4.- Zer ondorio izanen dituzte ospitaleetan itxaron-zerrendetatik eratorritako gastuek? Izan ere, badirudi ospitale bakoitzarendako pizgarrietatik aterako direla.

5.- Pentsatu al dute Foru Agindua nola aplikatu eta haren benetako jarraipena nola egin ospitale bakoitzean?

6.- Plantila gehitzea aurreikusi al da?

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: Pedro Antuñano Zárraga

Servirecord enpresarekin hitzartutako zentrozen instalazioetan eta altzarrietan atzemandako akatsei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Servirecord enpresarekin hitzartutako zentrozen instalazioetan eta altzarrietan atzemandako akatsei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean azaltzen du.

Orain dela gutxi, komunikabide batean agertu da gutxitu fisikoak hartzeko Tuterako Vencerol Egoitzako egoiliar batek José María Aznar gobernu zentralako Lehendakariari bildalitako eskutitzari buruzko berria. Eskutitz horren bitartez, egoitzako instalazioen hondatze-arazoei konponbidea ematearren esku hartzeko eskatzen zion.

Tuterako Vencerol egoitzean 18 gutxitu fisiko bizi dira; egoitza Servirecord SAz enpresak kudeatzen du. Hona aipatzen diren arazoetako batzuk: koltxoi eta somierren egoera txarra, geletako hezetasuna, iturri eta hodiekin loturiko arazoak, ontzi-garbigailurik eza edo garbitasun pertsonalerako gaien eza (xaboia, xanpua, hortz-orea edo hortzetako eskuilak, kasu); gai horiek, egoitzan bizi direnek, baliabide ekonomiko urriak dituzten persona horiek, beren diruarekin erosi behar izaten dituzte.

Hamar urte baino gehiago dira zentro hori lanean hasi zela. Dirudienez, instalazioetako eta baliabideen eskasia Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari igorritako urteko txostenetan azaldu izan dituzte hala 95 eta 96 urteetako txostenetako Baliabidee Materialei buruzko kapituluetan, nola 97ko urteko txosteneko Beharizanen kapituluan.

Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Zer bide ezarri du Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak ekimen pribatuko zentro itunduekin –Servirecord enpresarekin, oraingoan– instalazio eta altzarien arazoak konpontzeko?

2. Egia al da 95, 96 eta 97 urteetako txostenetan zentro horretako altzari eta instalazioetako arazoak azaldu zirela?

3. Noiz jakinarazi edo azaldu zituen Servirecord enpresak, halakorik egin badu, urteko txostenetan azaldutako arazo horiek.

4. Kudeaketa lana irabazteko asmoa duen enpresa baten eskuetan dagoenean, nola kontrolatzen ditu Nafarroako Gobernuak giza baliabide edo baliabide material aski daudela zentroan edo han bizi direnentzako garbiketa gai aski izatea bezalako alderdi zehatzak?

5. Egoitzan bizi direnek zazpi mila pezetatik 60 mila pezetara bitartean irabazten dute lan zentroetan eta enplegurako zentro berezietan, zein da itundutako plazen kostua eta zer eragin du hilabetero pertsona horientzat diruaren aldetik?

6. Zer nolako ikuskapen egin dira gaur arte egoitzan eta zein alderdi zuzendu dira gobernu zentralako Lehendakariari eta dirudienez Gizarte Ongizate Departamentuari berari ere azaldutakoetatik?

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Patxi Zabaleta Zabaleta Legebiltzarreko kide eta Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioko Ele-dun honek, idatzirik erantzuna izan dakidan eta Legebiltzarreko Araudiaren arabera, hurrengo galdera hauek egiten ditut, Gobernu osoari, baina bereziki Gobernuaren giza-harremanetako sailera zuzendurik.

1.- Joan den irailak 27ko egunkari batean eta beste zenbaitetan ere azaldu dira iragarki batzu honelako izenburuarekin "Oferta empleo público

Comunidad Foral de Navarra". Iragarki horiek enpresa pribatu batek eginak izan dira eta jende askorentzat trikimailu hutsa gertatu dira, bere itxuratik beste zerbait zirela pentsa zitekeelako. Alboan igortzen dut iragarki horietako baten fotokopia.

Iragarki horiek argitara emateko eskatu al diote baimenik Nafarroako Gobernuari? Jakinaren gainean al zegoen alde zuretik Nafarroako Gobernuari? Nafarroaren izenetakoren bat (esate baterako, Comunidad Foral de Navarra) erabiltzen denean edo erabili nahi denean iragarki batean, ¿ez al daukate egunkari eta aldizkariak esana alde zuretik erabilera hori baimendurik dagoela ziurta dezaten? ¿Zein dira Nafarroako Gobernuak orain arte hartutako neurriak bereak diren izenak zaintzeko erabilera pribatuetatik?

2.- Aipatutako iragarkiak Nafarroako Gobernuari jakinaren gainean egon gabe eta inolako baimenik eman gabe egin baldin badira, ¿zein dira ondoren hartutako neurriak? ¿Aztartu al dira iragarki horiek? ¿Aipatu al zaie zerbait iragarki horiek argitaratu dituzten egunkariei?

Iruñean, 1998ko azaroaren 14an

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionalei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionalei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Gizarte Ongizateko Bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduak xedaturikoaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den apirilean, espetxeko populazioaren heren batek elikadura-intoxikazio bat jasan zuen; inoxikazioak 32 preso jo zituen. Horietako batzuek dituzten eritasunak direla-eta, intoxikazioa bestelako prozesu organikoez gain pairatutako ondorio suertatu zen.

Behinola, preso-elkarteek langileria-arazoa zegoela esan zuten; horrek eragina zuen hainbat puntu garrantzitsu zaintzeko ahalmenean. Adibidez, elikagaiak jasotzen direnean zein egoeratan dauden ikuskatzea; baita ere, horien kontserba-

zioa eta sukaldean jasaten duten prestatze-prozesua.

Une honetan 4 profesionalek dihardute lanean sukaldean, eta horiekin egiten zaie aurre goiz-, arratsalde- eta libratze-txandei. Horietako baten kontratua abenduaren 31n amaituko da.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1) Iruñeko espetxeak egunero 120 menu eta 50 errazio ezberdin zerbitzatzten ditu, elikadura berezia behar duten preso askoren osasun-baldintzei behar bezala erantzuteko. Hori kontuan izanik, lau profesional nahikoa al da egunero bi txandari eta gainera libratze eta aste-bukaerei aurre egiteko?

2) Populazio txikia izanik, zaila gertatzen da sukaldean lan egiteko gaitasuna eta elikagaien higiena eta kontserbazioa zaintzeaz arduratzeko behar hainbateko esperientzia daukaten presoak aurkitzea. Espetxeko zuzendaritzak sukaldean laguntzeko profesional gehiago eskatu al du?

3) Profesional-kopururik egokiena hamar litzateke, Iruñeko espetxearen barne-funtzionamendua ezagutzen dutenen arabera: lau, goizetarako; hiru, arratsaldeetarako; eta hiru, libratzeak betetzeko. Sukaldeaz arduratzeko profesional-kopururik egokiena zein litzatekeen aztertu al du Gizarte Ongizateak?

Iruñean, 1998ko azaroaren 23an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Lehiaketa publikoa, 1999an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta Bilkura Egunkaria argitaratzea, enbalatzea eta banatzea esleitzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 17an, hurrengo erabakia hartu zuen:

– Gráficas ONA, SA enpresari esleitzeko kontratua, administrazio baldintzen orriek xedatuarekin bat, eta hurrengo prezioen arabera:

a) Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala:

Gaztelerazko edizioa: 4 pta. orrialdeko;

Euskarazko edizioa: 5,50 pta. orrialdeko;

b) Osoko Bilkuraren Bilkura Egunkaria:

5 pta. orrialdeko;

c) Foru Araubide Batzordearen Bilkura Egunkaria:

5 pta. orrialdeko;

d) Frankeoa, banaketa eta poltsa: 22,50 pta., ale eta bidalketa bakoitzeko.

Unean-unean indarrean dagoen BEZa aplikatuko zaie prezio horiei.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria, M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kide bat aukeratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 24an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarrak entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Joan den azaroaren 13an, Javier Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak uko egin zion Hezkuntza eta Kultura Batzordeko ordezkari bezala Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kidea izateari (95-10-27ko 14 zk.ko NPAO). Bere ordezkari bat aukeratu behar da. Hori horrela, ERABAKITZEN DA:

1. Kandidaturak aurkezteko epe bat irekitzea, abenduaren 9ko 11:00etan bukatuko dena.

2. Aukeraketa Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1995eko irailaren 4an onetsitako Arauen arabera egingo dela ezartzea (95-9-14ko 6 zk.ko NPAO).

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela agintzea.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

| | |
|---|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA |
|---|--|

1.

Eskaria:

Iruñean, 1999ko azaroaren 17an

2.

Iruñean, 1998ko azaroaren 20an.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

3.

Iruñean, 1998ko azaroaren 20an

4

Iruñean, 1998ko azaroaren 23an

Bozeramailea:

5.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Foru Parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

